


DIRU-SARREAK

Gure enpresan, diru-iturriak beharrezkoak izango dira jarduera mantentzeko eta garatzeko. izan ere, horien bidez lortuko ditugu gure irabazi guztiak. Irabazi horiei esker, urtez urte gure marka zabaltzen jarraituko dugu mundu osoan, eta gure helburua betetzen, munduko dantza eskola onena eta baliagarriena bihurtzen.

Gure enpresak hainbat diru-iturri desberdin izango ditu. Bezeroek gure zerbitzuengatik ordainduko dituzten kuoten bidez, diru-sarrera egonkorrak bermatuko ditugu. Kuota hauek, hilero kobratuko direnak, gure kalitate handiko zerbitzu eta ikastaroetara sartzeko aukera emango diete erabiltzaileei. Mailegu modura ulertzen ditugun kuota hauek izango dira gure diru-iturri nagusietako bat, eta gure jarduera aurrera eraman ahal izateko oinarri sendoa osatuko dute. Gutxi gore behera, pertsonako 110€ izango da.



Horrez gain, gure diru-sarrerak ez dira soilik bezeroek egindako ekarpenak izango. Beste iturri garrantzitsu bat publizitatea izango da. Gure marka garatzeko eta zabaltzeko, iragarki digital eta presentzialak eskainiko ditugu. Publizitate hau beste enpresekin esku hartze bat egingo da, eta aukera aparta izango dugu gure bezeroei balio erantsia emateko, era berean gure diru-sarrerak handituz. Gure instalazioetan iragarki espazioak eskainiz edo gure plataformetan publizitate digitala jarriz, diru-sarrera gehigarriak sortuko ditugu, gutxi gora behera, 2000 € hilero izango da.

Gainera, gure marka sendotzearekin batera, bestelako diru-iturriak aztertuko ditugu, hala nola babesleekin lankidetzak, dantza ekitaldiak antolatzea edo gure eskolaren irudia erabiliz produktuak saltzea, hala nola arropa edo dantza egiteko materiala. Gure komunitate esker, aukera izango dugu diru-iturri desberdin eta iraunkorrak sortzeko, eta horiek gure helburuak aurrera eramaten lagunduko digute.

Laburbilduz, gure diru-iturriak desberdinak eta ondo egituratuak izango dira, bezeroen kuoten bidezko sarrera egonkorak eta publizitate bidezko diru-sarrerak oinarri hartuta. Horiei esker, gure enpresa indartu eta zabaltzeko gaitasuna izango dugu, mundu mailako dantza eskola erreferente bihurtuz.